

Ingurumen politiken komunikazioa: sostengarritasunaren adierazle sozio-politikoaren bila

(Communication of environmental politics: looking for
sustainability sociopolitical indicators)

GALLITABEITIA, Iban; BÁRCENA, Iñaki; GOROSTIDI, Izaro;
LARRINAGA, Josu; MARTÍNEZ, Jone; SAN JOSÉ, Sergio;
ZUBIAGA, Mario

Euskal Herriko Unib. (UPV/EHU). Gizarte eta Komunikazio
Zientzien Fak. Politika eta Administrazio Zientzien Saila.
Sarriena Auzoa z/g. 48940 Leioa
inaki.barcena@ehu.es

Ingurumen politiketako informazio defizita dute. Gaiari buruzko informazio eskasak edo parzialak asko zailtzen du egitasmoen inguruko eztabaida publikoa. Eztabaida publikoaren gabezia honek errez hauspotzen ditu ingurumen gatazkak. Izapide parte hartzaileago batek gatazkaren parametro egokiak hobeto lekutuko lituzke. Diagnostiko hori berresteko eta konponbideak proposatzeko asmoz abian dagoen ikerketa proiektu baten aurkezpena da.

Giltza-Hitzak: Ingurumen politikak. Sostengarritasuna. Gatazka. Informazioa. Komunikazioa. Parte hartzea.

Las políticas medioambientales sufren de un déficit de información. La escasa información en torno al tema dificulta en gran medida el debate público en torno a los proyectos. Esta falta de debate público atiza fácilmente los conflictos medioambientales. Una gestión más participativa ubicaría mejor los adecuados parámetros del conflicto. Se trata de la presentación de un proyecto de investigación en marcha que tiene por objetivo confirmar lo anterior y proponer soluciones.

Palabras Clave: Políticas medioambientales. Sostenibilidad. Conflicto. Información. Comunicación. Participación.

Les politiques environnementales souffrent d'une carence en matière d'informations. La rareté et la partialité des informations disponibles sur le sujet desservent le débat public sur les projets environnementaux. Et l'insuffisance de débat public ne fait qu'attiser les conflits liés aux problèmes environnementaux. Une démarche participative serait pourtant utile pour recentrer les paramètres de tels conflits. Ce projet de recherche vise à vérifier ce diagnostic et à proposer des solutions.

Mots Clés: Politiques environnementales. Durabilité. Conflit. Information. Communication. Participation.

1. BERRITZAILEA DEN IKERKETA BATERANTZ

Gure gizartean eta batez ere komunikabideetan, gero eta espazio eta garrantzi gehiago dute ingurumen gaiak, arazoak eta gatazkek. Hots, ingurumena eta ingurumen politikak gero eta garrantzi handiagoa dute gure bizitza sozialean eta hiritarrok ingurumen aferatan gero eta informazio gehiago eskatzen dugu. Zentsu horretan, bada esaterik “sostengarritasun mailaren” (Gudynas, 2006) sakontasunaren adierazleeta-ko bat dugula ingurumena - administrazioa (ingurumen politikak) eta hiritarren jarrera trinomioaren artean garatzen den erlazio komunikatzailea¹.

Ikerketa proiektu honek ingurumen politikak eta sostengarritasun maila eta kalitate, informazio eta komunikazio alorrekin uztartu nahi ditu. Hau da, aztertu nahi duguna, nola ekoizten diren komunikazio estrategiak ingurumen sostengarritasunaren gaitetan bai instituzio eta alderdi politikoan partetik bai enpresa edo gizarte zibilaren taldeen eskutik da. Ikerketa garatuko den marko espaziala, Euskal Herria, oro har izanen da. Azterlanaren helburu nagusia, ingurumen informazioa nola bildu eta ekoizten den jakitea da, alegia, nola eta nolako kanaletatik sakabanatzen den, zer-nolako eragina duen publikoan eta zeintzuk diren iritzi publikoan eragin gehien duten kanpainak eta eragileak gerora definituko dugun lagin materialean.

Ikerlan honetan, gure zio nagusiak dira alde batetik eta lagin materialari so, energia, azpiegitura, lurralde antolaketa eta hondakinen politiken produkzio informazioa nondik eta nola ekoizten den ezagutzea, eta bestetik arlo horietan zein den gizarteak eskatzen duen informazioa eta nolako erantzunak ematen zaizkio gizartetik datorren ezagutza eta informazio eskaerari, zeintzuk diren euskal gizartean agertzen diren interesak eta nola asetzen diren eragile instituzional, sozial eta ekonomikoan partetik, alegia sostengarritasun kalitate adierazle sozio-politikoak. Metodologikoki, komunikazio estrategiak eta emaitzak nolakoak diren ezagutu ahal izateko, agente komunikatzaile guztiek, zoriz, instituzioek, komunikabide desberdinek, enpresek eta gizarte eragileek, talde ekologistak barne, sortzen dituzten dokumentuak eta kanpainak aztertuko ditugu aukeratutako alorrean.

2. KASUEN AUKERAKETA

Agian egin beharko genukeen lehenengo gogoeta kasu horiek aukeratzearen zergatiaren inguruan izan beharko litzateke, horrela, bi galdera nagusi egin ditzakegu,

1. Zergatik gatazka aukeratu ingurumen politika aztertzeko?
2. Zergatik kasu horiek eta ez beste batzuk?


Lehenengo galderari erantzunez, baldin eta gure jomuga nagusia “sostengarritasun politikan erdiko enborra diren zenbait materietan (urbanismo, garraio, hondakinak eta energia) Euskal Herrian egiten ari dena ezagutaraztea eta ingurumen politika horietan parte hartzen duten eragile desberdinek nola baloratzen duten egiten ari dena” bada, zergatik “ingurumen politikaren azterketa” operazionalizatzeko gatazka aukeratu?

1. Badira sostengarritasun maila desberdinen existentziaz jarduten dutenak, Gudynas irakasleak esaterako, “sustentagarritasun ahula, sustentagarritasun gogorra eta sustentagarritasun oso gogorra” desberdintzen ditu (Gudynas, 2003).

- Gatazkaren teoriak (Mouffe) galdera horren erantzuna daukate, dena den, gatazka politika publikoetan eragiten duten aktore guztien elkarrekintzaren hezurramitza den heinean, iritzi eta diskurtsoak kuantitatiboki gehiago diren heinean momentu hauten, baina batez ere, sozio ingurumen gatazka politika publiko arautzaile baten erantzuna/ erreakzio posiblea den heinean interesatzen zaigu.
- Gatazka informazioa/eztabaidaren puntu gorenena, alegia.

Bigarrenik, zergatik kasu horiek eta ez beste batzuk? Materien mugapena, laginaren mugapen estrategikoa izateaz gainera; kuantitatiboki, esan dezakegu badirudiela Euskal Herrian dauden ingurumen politika publikoen erantzunak/ erreakzioak alor horietan kokatzen direla, begiratu bada, EH 2000- 2007 urteen artean sortutako gatazkek zer nolako gaietan dute sustraia, (Sostengarritasun taldeko datuetatik sortutako grafikoa) Argi dago, beraz kuantitatiboki ere materien aukeraketaren justifikazioa egiterik badela. Bestalde, gogora dezagun lau gai horiek (urbanismo, energia, garraioa eta hondakinak ditugula BPGren zatirik handienaren sortzaile)

Taula 1



Beraz, kasuen aukeraketaren zergatia, segidakoa litzateke:

- Kasu berriak dira, gaur egun habian daudenak eta beraz, estrategia informatibo berriak eta antzinakoak antzeman ditzakegu.
- Horietako batzuetan estrategia parte hartzaileak egon dira bai eta mekanismo parte hartzaileak egon ere.

3. HIPOTESI BATERAKO BALIZKO ILDOAK


Gure hipotesi nagusia zera da, Euskal Herrian, beste ikerketa batzuetan aurkitu dugun bezala (TEA project- 1998-2001, Cuadra, 2001 eta Rodriguez, 2006) inguru-

men gatazkak ditugu nonahi, askotan inkomunikazio, informazio faltagatik eta pertsona edo talde interesatuen parte hartze eskasagatik, baina, eragile ekonomiko, politiko eta gizarte mugimenduen arteko harremanak asko hobetu daitezke euren arteko komunikazioa eta elkarren arteko informazio kanalak sakontzen, finean parte hartze politikak era garden eta zabalago batean egiten. Hori da hain zuzen ere, Aarhus-eko hitzarmenak bultzatzen duena (Danimarka-1998), Aarhus hirian adostu zena “Ingurumen Informazioa Eskuratzeko, Publikoaren Parte-Hartzea eta Epaiketara jotzeko” hitzarmenean hain zuen ere, 2005eko Abendutik hona Estatu Espainiarrean indarrean dago. Baina goazen hipotesien eremuan sakontzera.

3.1. Ugaltzen ari dira ingurumen gatazkak, zergatik?

Gaiaren inguruko iritzi osaketa/erabaki prozesuak ez direlako aski parte hartzaileak. Batez ere izapidearen hasieran. Egitasmoen abiapuntua ez da gardena, informazioa ez da nahikoa.

- **Ekimenaren aldebatetikotasuna:** Egitasmoen ekimen fasea eragile instituzional eta interes talde indartsuen esku dago da eta, askotan, ezkutuan bideratzen da.
- **Informazioaren gabeziak:** Gaiaren inguruko informazioaren plazaratzea (agenda-setting) ez da egokia: informazio iturri monopolistikoak, informazio kanalen “kartelizazioa” eta kontraste eza, informazioaren kalitate eta eduki eskasa, pertsuasio/propaganda gisa bideratutako informazioa...
- **Informaziorako kanalen gabeziak:** Egitasmoen bultzatzaileen eta beste eragile interesatuen edota herritarren arteko komunikazioa eskasa da, ez dago komunikaziorako kanal egokirik.
- **Ondorioa, pasibitatea edota oldartzea (biak desagokiak):** Ondorioz, herritarren parte hartzea/gaiarekiko ardura ez da oso handia izango, salbu zuzenean kaltetuta daudenen artean. Azken hauek erantzun oldartsura joko dute, besteren ezean. Honela gauzak, eztabaida gatazka parametrotan bideratzen den aldetik, erakunde-lobby eta herritar/talde kaltetuen arteko lehiara mugatzen da afera: Eskala aldaketa mekanismorik piztekotan, gatazka-ardatz orokorretan planteatzen da, gaiaren koordinadak gaintuz. Hala, ez dago zaborren, industria kutsakorren, azpiegituren edo ingurune babestuen inguruko **Eztabaida publiko** arrazionalik.



4. HIPOTESIA FROGATZEKO ZENBAIT JARRAIBIDE

4.1. Informazioa, datu gisa

- Egitasmoen inguruko ekimenaren/informazioaren abiapuntua zein da? Non eta nola fabrikatzen da informazioa?
- Informazioa kanalizatzeko tresnak zeintzuk dira? Zein da komunikabideen jarrera?
- Zein eragin du informazio horrek gizarte zabalean? Nola hartzen dute informazio hori kaltetuek/gizarte taldeek?
- Gizarte erantzunaren osaketari dagokionean, zein da hasierako informazioaren iturria, nola lortzen da informazioa, zeintzuk dira bideak?

4.2. Informazioa, diskurtso gisa

- Nolako diskurtsoa eta estrategia diskurtsiboak erabiltzen dituzte erakunde/lobbyek "informazioari dagokionean"? Nola markotzen dute diskurtsiboki "informazioaren gaia"?
- Nolako diskurtsoa eta estrategia diskurtsiboak erabiltzen dituzte gizarte taldeek "informazioari dagokionean"? Nola markotzen dute diskurtsiboki "informazioaren gaia"?


4.3. Informazioa, eduki gisa

- Aipatu arlo/auzietan (AHT, Muskiz, Zubieta-Usurbil, Urdaibai) zein da alde desberdinetatik bideratzen den informazioa, diskurtsoa, eta zeintzuk dira estrategia diskurtsiboak?
- Zein modutan jotzen dute mekanismo diskurtsiboak auziaren bilakaeran: protesta/negoiazio/akordio zikloetan, edo mobilizazio/desmobilizazio zikloetan, edo desmobilizazio goeratan?

5. HIPOTESI ALTERNATIBOAK, IRUDI GISA

- Eredu deliberatzaile sakona: informazioa/ekimen parte hartzailea, tresna parte hartzaileak beste fase guztietan.
 - Eredu agonistiko sakona: Tresna parte hartzaile muturrekoenak eta hauen ga-bezian gatazka, tarteko irtenbideen abantailak/desabantailak...
- Kontrajarriak al dira?

Taula 2



6. GAIAREN AURREKARIAK ETA EGUNGO EGOERA

Egia bada ingurumen kazetaritza fenomeno hazkorra eta garatzen ari dena kontsidera daitekeela eta mintegi eta jardunaldiak egiten ari direla azken urteotan, duela urte batzuk, 1998 urte aldera hasi ginen iruzkintzen ingurumen komunikazioaren arloa gure unibertsitatean ez zegoela betetik eta horregatik, hain zuzen, hasi ginen “Hermes eta Gaia: Sostengarritasuna, Komunikazio eta Ingurumen politikak” ikastaroak antolatzen, bi urtez urte, kazetaritza, zientzia politikoa, ekonomia, biologia eta beste adar akademikoen ekarpenak biltzeko. 2009. urtean V. edizioa burutzeko asmoa dugu. Alde horretatik ingurumen komunikazioan nolabait talde berritzaile eta aitzindari garelara esan daiteke, adibidez argitalpen alorrean (ikus. Inguruak 24. eta 31. ale bereziak).

Orain, ikerketa honekin beste urrats bat aurrerago joan nahi dugu, politika zehatz batzuk modu sakonago batean aztertu eta ingurumen komunikazioaren dinamikak modu teoriko zein praktikoa batean arakatzu.

7. HELBURUAK

Jomuga nagusizat har daiteke energia, azpiegitura, lurralde antolamendu eta hondakinen gaitan ezagutza teorikoa zein praktikoa plazaratzea, hots, sostengarritasun politiketan erdiko enborra diren aspektu haietan Euskal Herrian egiten ari dena ezagutaraztea eta ingurumen politika horietan parte hartzen duten eragile desberdinek nola baloratzen duten egiten ari dena. Horrela “komunikazio prozesua” aldagai askeztat hartuz, sostengarritasun maila- kalitatea ebaluatzea bilatzen dugu. Alor hauek jorratzerakoan, alegia, hondakinen kudeaketa, azpiegiturak, Lurraldearen antolakuntza eta energia ereduaren gestioa, perspektiba konparatibo batetik abia gaitzke ingurumen politiken komunikazioa aztertzeraz.

Helburuak, arestian diogun moduan bi motatakoak dira,

1. Helburu orokorrak: Ingurumen informazioa, ingurumen demokraziaren prozesu gisa, nola bildu eta ekoizten den jakitea, nola eta nolako kanaletatik sakabarnatzen den, zer-nolako eragina duen publikoan eta zeintzuk diren iritzi publikoan eragin gehien duten kanpainak eta eragileak.

Finean, aurretik aipatutako marko espazialean ematen diren sostengarritasun mailari buruzko lehenengo ondorio substantzialak lortzea.

2. Helburu zehatzak: Neurtu energia, azpiegitura, lurralde antolamendu eta hondakinen politiketan zein den gizarteak eskatzen duen informazioa eta nolako erantzunak ematen zaizkio gizartetik datorren ezagutza eta informazio eskareri, zeintzuk diren euskal gizartean agertzen diren interesak eta nola asetzen diren eragile instituzional, sozial eta ekonomikoen partetik.

Ikerketa honen ekarpenak hiru dimentsiotan aurkitzen dira, alde batetik BERRIKUNTZA alorrean, ikerlanak arlo zientifiko honetan markatzen dituen ikuspegi berriengatik. Bigarrenez ikerlan honek INFORMAZIO berezitua sortuko du eragile sozio-politiko guztientzat eta hirugarrenez elkarren arteko KOMUNIKAZIOA erraztatuko ditu parte-hartze aktiborako aukera eta prozesu berriak proposatuz.

- Helburu normatiboa: herritarren ardura publikoa suspertzea, gai publikoen inguruko eztabaida publikoa sustatzea eta borondatezko adostasuna bideratzea, gatazkaren gordintasuna arinduz.

Modua:

1. Politika publikoen ekimenaren fasean gardentasuna eta kontrol publiko/herritarra ezarri eta behetik gorako ekimenerako tresnak antolatu.
2. Informazioa plazaratzeko tresnak ugaltu, edukiak kontrolatu eta aberastu, kontrastea ziurtatu..
3. Erakunde, Lobby, gizarte talde eta herritarren arteko komunikazio kanalak sortu eta egonkortu.

8. MARKO METODOLOGIKOA

Metodologikoki lau aspektu landu nahi ditugu:

- a) Bigarren mailako dokumentazio analisia eta bilketa. Kasuen aukeraketa. (Desk Research).
- b) Jatorrizkoa datuen bilketa: Elkarrizketa erdi-egituratuak eragile sozio-politikoekin, eragile sozio- politikoeekin eztabaida taldeak.
- c) Eduki eta diskurtso analisia:
 - c1) Aldagai diskurtsiboen analisi eta identifikazioa. Sistematizazio eredu gauzatu.
 - c2) Aukera politikoaren egitura eta eragile sozio-politikoaren soziogramak egin eta azaldu.


Lanerako galdera metodologiko pizgarriak hauek lirateke:

- Gatazkan dauden aktoreak eta zer nolako informazioa sortzen duten (sortzeko aukerak dituzten edo ez), beti alde bateko jarrera aurkezten da? Edota bi jarrerak esparrua daukate?
- Gatazkaren inguruan jasotzen dena aldeko/kontrako/edo jarrera neutroa azaltzen dute?
- Informazioaren alde semantikoa, ikonografikoa eta arreta eskala neurtu ahal genituzke. Uste dut, neurketa horretan emakume perspektiba sartu beharko genukeela. Bai kualitatiboa (sakoneko elkarrizketak eginez, emakumeen jarrera ezagutzeko eta alderdi formala eta edukizko alderdia ezagutzeko) bai kuantitatiboa (neurketa egiterakoan fitxan datua jasotzeko esparrua utzi, semantika, azterketa ikonografikoa, e.a. egiteko).

Sor dezakegun informazioa:

1. Kuantitatiboa: gatazka bakoitzean komunikabideek kuantitatiboki emandako esparrua (pieza informatiboak azterketa unitate).

Taula 3



2. Kalitatiboa: Nolakoa da informazio hori (diskurtsoen analisirako soziogramak).

Ikerketaren hiru ardatz nagusiak hauek dira:

Medioen azterketa

1. Lehenego pausua euskarri komunikatiboak aukeratzea da: Prentsa, telebista, Irrati, Internet aukeratu. Zeintzuk eta zergaitik.
2. Bigarren pausua euskarri bakoitzeko medioak aukeratu: zenbat egunkari eta horren justifikazioa, lan berdina Internet, Irrati eta talebista kateekin.
3. Hirugarren pausua: Ikertzeko objektua. Albistea, editoriala, informatiboak, programa bereziak...
4. Laugarren pausua: Ikerketa lanaren epea. Datak edota epeak aukeratzea.
5. Laugarren pausua: Fitxa konkretatu.

Atal hau lantzeko dimentsio kuantitatiboa erabiliko dugu . Zenbatek zenbatetan berba egin dute ikertutako gatazkari buruz eta dimentsio kalitatiboa, nola informatu dute ikergaiari buruz.

Diskurtsoen analisia

Ikerketaren ardatz hau lantzeko tresna hauek ditugu:

1. Fitxak: Fitxetatik ateratako informazioaren dimentsio kalitatiboa landu: key words, titularraren karakterizazioa, iturriak.
2. Elkarriketa sakonak.

Estrategia komunikatiboak

Hirugarren ardatza hau lantzeko erabili ditzakegu tresna hauek:

- Sakoneko elkarriketak: Nori, zertarako, zer bilatzen dugu?

- Eztabaida taldeak: Informazioa osotasunean jasotzeko interesgarria izan daiteke.

9. HEDAPENA

Lau dira ikerlan honen hedapenerako aurreikusten ditugun bideak:

- a) Argitalpena. Idatzitako txostenez baliaturik, asmoa dugu liburu akademiko bat idazteko gure lana sozializatzeko.
- b) Kongresuak. Normala denez, bai Zientzia Politikako eta Soziologiako zein Komunikazio Zientzien arloko kongresuetara bidaliko ditugu gure komunikazio eta ponentziak, normalean egiten dugun bezala
- c) Jardunaldiak. Bigarren urtean konklusioan idatzi baino lehen jardunaldi unibertsitarioak ospatu nahi ditugu, egindako lanaren berri emateko, talde ekologista, enpresariak eta instituzioen partaideekin eta erkidego unibertsitario zein publiko arruntari zabalik.
- d) Doktorego Tesia. Finantziazio osagarri bat lortuz gero gure asmoa da komunikazio edo zientzia politikoan zein soziologian lizentziatu batek doktorego ikerlana burutu gai honen inguruan.

10. BIBLIOGRAFIA

- BARCENA, Iñaki; IBARRA, Pedro; GUARROTXENA, Eunate; TORRE, Jon. 2003: "Environmental Protest in Basque Country"; ROOTES, Christopher: Environmental protest in western Europe liburuan. Ecpr. Oxford University Press. Nwe York.
- CUADRA, Analdyia, 2001: Análisis cruzado de conflictos ambientales como problemas de comunicación, Revista latina de comunicación 40. zenbakian
- GUDYNAS, Eduardo. 2003: "Desarrollo sostenible, ciudadanía y la construcción de un nuevo concepto: Florestaía"; Rio Blanco lan taldera aurkeztutako txostena.
- RODRÍGUEZ, Miren. 2006: "Políticas de comunicación de las instituciones públicas ante proyectos que originan una gran contestación social" ZER aldizkarian, 2zkoa. 25-55.